




Euskal Autonomia Erkidegoan babesgabetasun egoeran dauden haurren esku-hartzean parte hartzen duten eskolako eta gizarte zerbitzuetako profesionalek elkarrekiko dituzten harremanen inguruko pertzepzioak

US11/18: UPV/EHU deialdian diru-laguntza jaso duen proiektua: Unibertsitatea-Gizartea 2011



Ikerketa-taldea: María José Alonso (Ikerlari Nagusia), Nekane Beloki, Leire Darretxe, Isabel Martínez, Begoña Martínez, Amaia Mendizabal, Virginia Pérez Sostoa eta Aranzazu Uribe (UPV/EHU)

Elena Aycart, Fermin Martín eta Arantza Remiro (Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa)

AURKEZPENA

Ikerketa honetan aztertu nahi izan dira babesgabetasun egoeran dauden hurrekin lan egiten duten eskola zein gizarte zerbitzuetako profesionalen arteko harreman pertzepzioak .

Hauek izan dira proiektuarekin lortu nahi izan diren helburu zehatz batzuk:

- Identifikatu babesgabetasun egoeran dauden hurrekin eskuhartzen duten eskola zein gizarte zerbitzuetako profesional desberdinek dituzten elkargunerako lanbide testuinguruak (eremuko mapak).
- Aztertu babesgabetasun egoeran dauden hurrekin eskuhartzen duten eskola zein gizarte zerbitzuetako profesional desberdinek mikro-testuinguru desberdinetan dituzten pertzepzioak eta lanbide harremanak.
- Identifikatu eta sistematizatu testuinguru bereberetan esku-hartzen duten eskola zein gizarte zerbitzuetako profesional desberdinen artean lankidetzaren praktika egokiak, komuna den esku-hartze marko-eredu bat sortzen laguntzeko, eta babesgabetasun egoeran dauden hauren egoera hobetzeko.
- Proposatu eskola zein gizarte zerbitzuetako profesional desberdinek egindako lanaren kudeaketaren eta pertzepzio onaren ikuspegitik, babesgabetasun egoeran dauden hurrekin esku-hartze hobea izateko lagungarri identifikatu direnak.
- Hedatu, familia babesgabetasun egoerak hobetzeko, proiektuari esker izandako emaitza eta proposamenak, komunitate zientifikoaren barrenean eta profesionalki konprometituta dauden eta interesa duten oinarritzko hezkuntzaren arduradun eta eragileen artean.

Landa-lana Euskal Erkidegoaren hiru lurraldeetan egin da. Zehazki, Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako bulegoak emandako datuak kontsultatu dira, lurralde hauetan babesgabetasun egoeran dauden ume kopuruak ezagutzeko eta kopuru handienaren kokapenak identifikatzeko. Aholku Batzordearekin egiaztatuta, ikerketa hurrengo auzoetan bideratu da: Iralan (Bilbo), Belaskoenean (Irun) eta Sansomendin (Vitoria-Gazteiz). Hiru auzoetan, aztertutako ikastetxeek Ikas Komunitate bihurtzeko erabakia hartu zuten.



IKERKETAN ERABILITAKO METODOLOGIA

Metodologia komunikatiboa erabili da ikerketa prozesu guztian zehar, diseinu dialogikoak ikerketa-objektuaren errealitate soziala eraldatzeko duen eragina frogatuz.

Laguntza eta Aholkularitza egitura kontuan izan da. Horretarako, eskola eta gizarte eremuko profesionalen osatutako **Aholku Batzordea** eratu da. Honakoak izan dira partaideak: Baikara Familien Elkarteko profesional bat; Arartekoaren Haur eta Nerabeen arloko arduraduna; Berritzegune Nagusiko (Vitoria-Gasteiz) Pertsona Nagusien eta Ikas Komunitateen aholkularia; Eusko Jaurlaritzaren Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Batzordearen (ISEI-IVEI) ikerlari bat; eta Gipuzkoako Heziketa Konpentsatorioko eta Prestakuntza Okupazionalako Kontsorzioaren arduradun bat.

Ikerketan zehar **teknika kualitatiboak** erabili dira. Dokumentuak aztertu eta literatura zientifikoaren bibliografia berrikustez gain, informazioa jasotzeko teknika desberdinak martxan jarri dira:

- ❖ Eztabaida talde komunikatiboak (ET)
- ❖ Sakoneko elkarrizketak (SE)
- ❖ Lan-taldeak (LT)



Ikerketaren daturik garrantzitsuenak aurkezteko eta emaitzak egiaztatzeko **jardunaldi bat (J)** egin da, bi eremutako profesionalekin. Jardunaldi horretan jasotako informazioak interesa du profesionalen pertzepzioa hobetzen laguntzeko.



EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Informazioa aztertu eta interpretatzeko kategoria sistema erabili da, izaera eraldatzaile edo baztertzailerako dimentsioak kontuan hartuz.

Jarraian, lortutako emaitza eta ondorio batzuk laburki aztertuko ditugu:

- **Esku-hartze ereduak** bai esku-hartzeko ikuspuntuei, estrategiei edo teknikei, bai testuinguruaren marko sozialari dagokie. Bi eremuetan esku-hartzeko eredu desberdinak daude, araudi erregulatzaile komunak izan arren.

Ikerketa honetarako aukeratutako eskola eremuko ikastetxeak "Ikas Komunitateak" dira. Beren eskuhartze ereduaren oinarria hezkuntza eragile guztiekin elkarlanean aritzearena da.

"Azkenean ikaskuntza komunitate bat zera da, leku bat non denok komunitate horren partaide garen, ez soilik... kontzeptuaren oinarria da irakasleek ez dutela bakarrik hezten, baizik eta familiek eta auzoko eragile sozialek prozesuan modu aktiboan inplikatu eta parte hartu behar dutela. Orduan beno, haiek behar izaten gaituzte hainbat jardueretan parte hartzeko, guk gainera oso gustura parte hartzen dugu, azkenean ikasleak konpartitzen ditugulako, erabiltzaileak konpartitzen ditugulako, esan nahi dugu, eta guri interesatzen zaigu haur horiek eskolan ondo egotea, gero ere ondo egongo direlako kalean, egongo dira... edo ez, baina beno, niri pertsonalki haur horiekin gelan irekitzeak asko laguntzen dit nire kanpoko lanerako, ezagutzen nautelako, nik ia ez daukat zertan joan behar esatera zergatik ez diren etortzen, haiek niregana etortzen dira. Denak ezagutzen ditut, beno, denak... gutxi gora-behera asko, ia denak" (SE)

Gizarte zerbitzuetako eremuan desberdintasunak ematen dira, bai administrazio mailan bai eskumen egituretan, nahiz guztiek arautegi komunak izan, eta esku-hartzerakoan beren komunitatean oinarritutako apostu argia egin.

Nahiz eta babesgabatasunean dauden hurrekin esku-hartzean teorikoki ikuspegi komunitario baten alde aurreratu, praktikan berriz, ikuspegi psikologistak dira zabalduenak (J)

Beharrezkoa da esku-hartzearen ikuspegi eta analisi globala alde guztietatik izatea, baita guztion balorazio positiboa izatea ere (J)



- **Elkarguneak** babesgabetasun egoeran dauden haurrek beren ongizatea lortzeko guneak dira. Beraientzat lan egiten duten sistema eta kompetentzia desberdinetako profesionalak, ados jarri behar dute eta era koordinatuan lan egin behar dute. Gutxienez lau maila bereizten dira sakontasun gutxiagotik gehiagora: ezagupena, onarpena, elkarlana eta lan osagarria, adostutako esku-hartze eredu konpartituz.

EZAGUTZA:

Profesionalek aitortzen dute ez direla elkar ezagutzen, komunikazio falta dagoela eta horrek beren arteko lana oztopatzen duela. Pertsonalki ezagutzen direnean komunikazioa hobetzen da (J)

ONARPENA:

Eskola eremuko profesionalak ez dituztela ezagutzen gizarte arloko profesionalak, ezta beren zerbitzuak ere.

Nahiz eta Ikas Komunitateak diren, bakarrik irekitzen dira gizarte zerbitzuetako profesionalak zentrorra sartzeko baina ez, komunitatean eta komunitatearekin parte hartzeko garaian. Era honetara, ikastetxeak topaketa lekuak eta komunitatearen espazio bihurtzen dira. Ikastetxeak topaketa-espazioak dira baita komunitateko espazio batzuk ere (J)

ELKARLANA:

Hautzaroarekin esku-hartzen duten profesional guztien artean (hezkuntza, osasuna, justizia, babesa...), elkarlana modu sistematiko, egituratu eta prebentibo batean hobetzeko premia konpartitzen dute, helburu berberengatik lan eginez.

Esku hartzea hobetzeko, profesionalen artean eremu komunak sortzeak garrantzia du (J)

Identifikatzen dituzten elkarguneak, batez ere, koordinazio bilerak eta telefonoaren bidezko kontaktuak dira. Oro har, estandarizaturik dauden bost bilera formatu azpimarra daitezke: diziplinartekoak; izaera orokorragoa eta komunitarioagoa dutenak; premiaz artatu beharreko kasu larriak aztertzeak; zerbitzuen baitakoak, baliabideen barne kudeaketa eta koordinazioa gauzatzekoak eta familiekin egiten diren bilerak. Topagune informalagoak eta profesionalak elkarrekin parte hartzeko programak ere baloratzen dira.

Ikerketan garbi geratzen da batzuetan azaleko harremana izaten dela haur eta familia baten inguruan lanean ari diren profesionalen artean. Kasu batean ezagutu ere ez ziren egiten. Beste profesionalak ezagutzeko eta onartzeko aurreiritziak ere badaude.

“... askotan harremanak telefono bidezkoak dira, emailaren bidezkoak, jende guztia lanez gainezka, eta orduan, noski, horrek ere mugatu egiten du, ezagutzen ez zaituztenean, noski, nola lan egiten duten entzunez dakizunean ... ezagutzeak ematen dizun feedback hori, estea, begira, nik hau, hau eta hau nahi dut ...

“Horregatik diot, haurrari eragiten dio ... azkenean ez delako jakiten haurra noren eskuetan dagoen eta nola dagoen. Eta batek zerbait egiten du, besteak beste zerbait ... eta bakoitzak esku hartzen du egokien iruditzen zaio, baina, klaro, ondorioz ez dago esku hartze edo proiektu komunik” (SE)

- Elkarrenganako dituzten *pertzepzioak* elkarguneetan eta elkarrekintzetan bat egiten duten begiradei egiten die erreferentzia.

Eskolako profesionalak beren lanaren inguruan duten pertzepzioa positiboa da eta uste dute Ikas Komunitateen proiektuak esku hartzeko testuinguru egokia eskaintzen duela.

“baina, hala ere, hau da, badira gauza batzuk eskolan lehenengo minutuan ikusten direnak eta beste organismo batzuetan ikusten direnerako, ba, batzuetan, haurrak ihes egiten digu” (ET)

Eskolak harreman desberdina du Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako (OGZ) profesionalekin eta Etxe Funtzionaletako gizarte hezitzaileekin. Oro har, OGZetako gizarte hezitzaileekin harreman ona daukate, zentroan aurrera eramaten dituzten programetan parte hartzen baitute. Beste profesionalekin, berriz, harremana haurren beharretara mugatzen da.

“... eragileen artean nahiko harreman erraza dagoela uste dut. Kale hezitzaileekin bilerak egoten dira, noizbehinka gaiak lantzen ditugu, oso jende irekia eta zabala da. Arazo bat aipatzen diezun guztietan prest daude begiratzeko, aztertzeko, laguntzeko, kontuan izaten dute ... hau da, ikusten da gurekin parte hartzen dutela eta pentsatzen dut nahikoa integratuak daudela zentroan eta zentroaren beharrezanetan. Ludotekekin ere dugun harremana nahikoa erraza dela uste dut ... iruditzen zait beti zaudetela guri entzuteko prest eta planteatzen dugun edozein beharretarako. Eta, beno, ahal den neurrian beti ere, saiatzen gara zuei zentroan leku bat egiten” (ET)

Gizarte Zerbitzuetan bi profil profesional aurki ditzakegu, funtzio eta eginkizun ezberdinekin: Gizarte Langintzako profesionalak eta Gizarte Hezkuntzakoak. Gizarte Langintzako profesionalak sistemak presionatuta sentitzen dira eta Gizarte Hezkuntzako profesionalak dira haurren bizitzarekin harreman zuzenagoa dutenak.

“Nik uste Gizarte Langile batzuk aisialdian lan egiten dugunak bezala ikusten gaituzketela, haurren denbora libreka betetzen dugunak, apurtxo bat “han badaude, ondo daude”. Eta hemen gakoa ez da ondo etorriko zaien ala ez. Programa espezializatu bat da, zuk egin behar duzu balorazio bat haur horrek intentsitate bat behar duela bere esku hartzean eta nik erantzun egin behar dut. Nik uste dut lehen mailako arretako gizarte-zerbitzu bezala ez dakigula hori jasaten” (SE)

Gizarte esku hartzearen ikuspegitik, eskola, giza errealitatearekiko itxia den erakunde bat da eta zailtasunak daude oraindik ere berarekin elkarlanean aritzeko.

“guretzat oso garrantzitsua da eskolak ere familiei komunikatzea, sakotan gizarte zerbitzuei ezkutuan hainbat gauza kontatzen dizkigute, baina diot: “hitz egin duzu?” haurrarekiko zailtasunen inguruan, baina diot: “baina hitz egin al duzu familiarekin? Hau da, tutore bezala, eskola bezala, zuzendaritzatik, iruditzen zaizuen tokitik, guk ez dugu esango nork komunikatu behar duen, hitz egin duzue familiarekin?, saiatu zarete arazo hau familiarekin konpontzen?”. Noski, eta eskolak esaten dizu: “ah, ez, ez, hori zuek egin” (ET)

Hala ere, profesional guztiek pentsatzen dute koordinazio on bat dagoenean, familiek egiten duten lanaren inguruko pertzepzio hobea dutela, nahiz eta zailtasunak aurkitu koordinazio horretan.

- **Kultura profesionalak** badu zerikusia besteekiko lana ikusteko moduan. Identitate profesionala, harremanak errazten edo zailtzen dituen elementua da.

“Nik sentitzen dut ibilbide profesionalgatik edo kultura profesionalagatik gu izan garela beti funtzionatzeko moduak proposatuz joan garenak, beti ondo hartuak izan ez direnak ... sistema bat egiten da, taldetik arduradunarengana joaten da, arduradunarengandik beste arduradunarengana eta berriro taldera. Ez dago profesionalen arteko talde lan bat, oinarrizkoa” (SE)

Eskolako kultura profesionala estatikoagoa da aldaketen aurrean, gizarte zerbitzueen eremuan, aldiz, lanbideak gazteagoak eta dinamikoagoak dira.

Babesgabetasun egoeran dauden hurrekin lan egiten duten profesional askok beren bokaziozko profil pertsonalari erantzuten diote. Beren ardura formaletatik eta ordutegietatik at geratu, eta baliabide eta errekonozimendu nahikoa ez izan arren, ahal duten guztia egiten dute haurren beharrei erantzuteko.

Azpimarratzen dira gaitasun altruista eta borondatea, pisu emozional gogorrari aurre egiteko gaitasuna, nahiz erabakiak hartzeko ezintasunaren aurrean sortzen den frustrazioa. Askotan gainera, lana bakardadean egiten da, erakundearen babesik gabe.

Maisu-maistren formazioan funtzio soziala sartzea, beste profesional batzuekiko kolaborazioa ez dadin borondate pertsonalen menpe egon (J)

- **Etika profesionala** transmititzen den informazioaren bapetekotasun kontuetan atzeman da. Ataka etikoa elkar trukatzeko informazio esanguratsuaren mugak zehazterakoan azaltzen da. Distantzia emozionalaren inguruko ataka etikoak ere azaltzen dira.

Bi lan eremuetan agertzen da informazio ezaren kexa (J)

- Ikerketan babesgabetasun egoeran dauden hurrekin lan egiten duten profesionalen arteko kolaborazioa errazten duten **praktika onak** aitortu dira.

Eskolak komunitatera irekitzeak eta gizarte zerbitzuetako profesional ezberdinek zentroetako eta geletako ekintzetan parte hartzeak koordinaziorako eta kolaboraziorako bide bat irekitzen du. Zentzu honetan, eskolek eta gizarte zerbitzuek era koordinatuan programak aurrera eramatea, familiaren eta beste eragile batzuen parte hartzearekin batera, haurren babesgabetasunari aurre hartzeko bide bat izan daiteke.

Badira familien konfiantza lortu duten profesionalen arteko koordinazio esperientziak. Bertan erakusten ari da, koordinazio mahaietan berdintasun ikuspegi batetik parte-hartzeak duen ahalmen guztia.

HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Ikerketa prozesu honetan zehar ondorengo ideiekin zerikusia duten hobetzeko proposamenak agertu dira:

- Profesionalen funtzioen artean koordinazioa sartzeara.

Koordinaziorako lekuak eta momentuak topatzea (J)

- Sistema bietan malgutasun handiago bat baimentzea.

Beste profesionalekiko harremanak zaindu eta esku hartzen duten errealitateekin eta zailtasunekin bat egitea.

“Nire esku hartzea beste profesionalen begietatik aztertzea” (J)

Talde mistoek aurrera eramango dituzten ikerketak bultzatzea (J)

- Elkarguneak era zabal batean ulertzea, komunitateko espazio hezitzaileak irakaskuntzarako espazioak baitira haurrentzat.

Eskolaren zentralismoarekin apurtu beharra (J)

- Profesionalen arteko ekintza formatzaileak bultzatzea, profesionalen arteko ezagutza bultzatuz eta hizkuntza komun eta partekatua sortuz joateko.

Beste profesional batzuekin helburu komunak topatzea (J)

Praktika onak kontrastatzeko eta zabaltzeko espazioak zabaltzea

- Familia eta komunitateari zuzenduriko gizarte zerbitzuen inguruko formazio eta informazio ekintzak aurrera eramatea, topaguneak bultzatzeko eta prebentzio lan giza hezitzaileak aurrera eramateko.

Erakundeek esku hartze prebentiboa babestearen beharra (J)

-Hizkuntza aldaketa bultzatzea, babesgabetasun egoeran dauden haurrak eskubidedun subjektu bezala ikusteko.

Begirada aldatu, haurrak eskubideak dituzten subjektu bezala ikusiz. Babesgabetasun egoeran dauden haurrak ez dira kasuak, beharrak dituzten pertsonak baizik (J)